

b.1. BIDAIA LAGUNAK

> Joxeren bidaiak




- Asmatu



Euskal Herritik Nikaraguara

(Deskripzioa karpetan)



Kaixo, lagunak:

Zer moduz zaudete? Jakin dut lehenengo karpeta bukatu duzuela. Asko ikasi duzue, ezta?

Datozen egunetan bidaia bat egingo dut; Nikaraguara joango naiz. Horregatik, pare bat astean ez duzue nire berririk izango, baina ez pentsa ez dudarik zuentzako ezer prestatu! Ez, ez ni ez naiz zuekin hain erraz ahaztuko.

Aurreko lanei esker, zeuen burua eta zuen familia aurkezten ikasi duzue. Orain, berriz, zuen herriak deskribatzen ikasiko duzue. Zuen herriak ezagutu nahi ditut, horrela, agian, nire hurrengo bidaia, zuen herrietara egingo dut.

Zuen herriak deskribatzen ikasteko gauzatxo batzuk bidali dizkizuet: Lehenik eta behin, Euskal Herria ezagutzeko bideo bat prestatu dut. Adi-adi ikusi, zuek ere hori egiten ikasiko duzuelako. Herriaren deskripzioa egiten ikasteko, lehenengo, hiztegia ikasi beharko duzue. Gutunarekin batera bidali dizkizuet hiztegi-koadernorako orrialdeak. Gauza mordo daude, lasai, poliki-poliki ikasiko ditugu.

Hala ere, herriaren deskripzioarekin hasi aurretik, proposamen bat egingo dizuet: jolas egingo dugu?

Egin zerrenda bat. Ea nork asmatzen duen zein garraio-bide erabiliko ditudan Nikaraguara iristeko. Hegazkina, itsasontzia...?

Helmugara iristen naizenean izango duzue nire berri!


JOXE

b.1. BIDAIA LAGUNAK

> Joxeren bidaiak



- Asmatu



Nikaraguatik Europara
(Deskripzioa karpetan)

Kaixo, lagunok,

Zer moduz zaudete? Esan didate Euskal Herrira ere beroa iritsi dela. Dagoeneko egunak luzeagoak dira eta alde guztietan txorien txio-txioa entzun daiteke, loreak ere nonahi aurkitzen dira. Pasa da. beraz, negu gogorra: euria, elurra, ekaitza, txingorra, ... hotza. Txamarra lodiak armairuan gorde eta arropa arinagoak erabiltzen has gaitezke.

Eta, esadazue? Zeuk zer moduz zabilzate euskara ikasten? Zerbait ikasi duzue? Bidali dizkizuedan gauzak gogoko izan dituzue? Oraindik ez dut jaso zuen berririk, e!

Albiste bat emateko idatzi dizuet: banoa Nikaraguatik lekuz aldatzeko garaia dela uste dut. Oso gustura egon naiz Matagalpako basoetan eta lagun asko egin ditut, baina munduko txoko guztiak ezagutu nahi ditudanez, banoa. Oraindik ez duzue Kintxo ezagutu e! baina, lasai bidaia luze bat dut aurretik eta, nire helmugara iritsi bitartean, ikasgelan egiteko lanak eman dizkiot zuen irakasleari.

Badakizue nora noan? Europara! Oraindik, ez dizuet, nora esango, baina nire ipuinik maitatuena idatzi zen lekura noa. Badakizue ipuinak asko gustatzen zaizkidala eta gogoia daukat ipuinean hainbeste aldiz irakurri ditudan parajeak ezagutzeko.

Proposamen bat dut zuentzat: Egin zerrenda bat. Ea asmatzen duzuen zein garraio-bide erabiliko ditudan Europara iristeko. Hegazkina, itsasontzia...? Helmugara iristen naizenean izango duzue nire berri!

Bitartean, mila patxo bakoitzari

JOXE

b.1. BIDAIA LAGUNAK



> Joxeren bidaiak



- Asmatu

Nikaragua-Europara

(Kontaketa karpetan)



Kaixo, kaixo!

Lagunak, arazo txiki bat izan dut: Europara bidean galdu egin naiz eta Afrikara etorri naiz; Cabo Verdera.

Matagalpako basotik Managuara (Nikaraguako hiribura) autoz joan nintzen eta han yate batean sartu nintzen Bartzelonara iristeko asmoarekin. Baina, gauzak zer diren, iparrorratza puskatu eta Afrikako hegoaldera iritsi nintzen. Hegazkinez iritsi naiz Cabo Verdera.

Horregatik, orain, Cabo Verdeko irlatxo txiki batean nago: OIAM-en. Hemen lagun bat daukat: Airam.

Badakizue zer!, Oiam-en gauza oso arraroak gertatzen dira beti. Bideo bat bidali dizuet ikusi dezazuen...

Noski, ez naiz ahaztu, euskara ikasten jarraitzeko lantxoak ere bidali dizkizuet.

Patxo handi bat!

JOXE


b.1. BIDAIA LAGUNAK

> Joxeren bidaiak



- Asmatu

Cavo Verdetik Europara
(Narrazioa karpetan)



Kaixo, neska-mutilak!

Zer moduz zabiltzate? Azkenean lortu dut! I ritsi naiz nire ipuinik maitatuena idatzi zen lurraldera!

Ea asmatu! Non nago? Aspaldi esan nizuen Europan zegoela, baina Europa handia da, noski! Nire ipuin maitatuaren benetako izena "Le Petit Chaperon rouge" da. Zein hizkuntzatan dago? Bai! Oso ondo, frantsesez, orduan, non nago? Edarto! Frantzian nago. Meung-sur-Loiren nago nire lagun Gorritxoren etxean.

Nire ipuinik maitatuena bidali dizuet: Txano Gorritxo. Ezagutzen duzue? Nola esaten diozue zuen herrietan?

Gai honetan ipuinak kontatzen ikasiko dugu, horretarako hamaika lantxo bidali dizkizuet. Hasi bidalitako ipuintxoarekin eta pixkanaka-pixkanaka ikasiko duzue ipuintxo bat euskaraz ondo idazten, ados?

Patxo potolo bat nire pottokoak,


JOXE

b.1. BIDAIA LAGUNAK

> Joxeren bidaiak



- Asmatu



b.1. BIDAIA LAGUNAK

> Joxeren bidaiak

- Asmatu

